



© Plan Internacional / Bangladesh

POSIZIONAMENDUA GENERO-BERDINTASUNERAKO HEZKUNTZA

Espainiako HAMK koalizioa zuzentzen dute estatu-mailan Ayuda en Acción, Educo, Entreculturas eta Plan Internacional erakundeek, eta, martxoaren 8ko Emakumearen Nazioarteko Egunaren harira, Hezkuntzaren Aldeko Munduko Ekintza Astea ospatzeko, genero-berdintasuna sustatuko duen, diskriminazio eta bazterketaren arrazoi sakonak jorratuko dituen eta gizarte justu eta berdinezalea eraikitzen lagunduko duen hezkuntza erreklamatzeko.

TESTUINGURUA

Munduak hezkuntza-krisi globala du aurrean. Nazio Batuek azaldu dutenez, hezkuntzak krisi hirukoitza bizi du: berdintasun-krisia, milioika pertsona eskolatu gabe baitaude; kalitate-krisia, eskolatutako pertsona askok ez dutelako oinarrizkoa ere ikasi, eta, noski, egokitasun-krisia, hezkuntza-sistema askok ez dituztelako ematen herritartasun aktiborako oinarrizko ezagutza eta trebetasunak, azkar aldatzen den egungo mundu konplexuan.

COVID-19aren pandemiak, gatazkek, larrialdiek eta ekonomia- eta klima-krisiek krisi-testuinguru hori luzatu dute, eta, ondorioz, gerrak, ezbeharrek eta lekualdaketek eragindako 222 milioi haur eta nerabek premiazko hezkuntza-laguntza¹ behar dute.

Krisi hori, halaber, desberdinkeria- eta diskriminazio-krisia da: neska, nerabe eta emakume gazteek oztopo eta zailtasun handiagoak dituzte hezkuntzan sartzeko, prestakuntza bukatzeko, erreferenteak topatzeko eta gizartearen arlo guztietan parte hartzeko prestatzeko, etorkizuneko enplegua barne.

Nahiz eta azken 20 urteetan urrats handiak egin diren neska eta emakumeen hezkuntzan eta gaur egun neska eta mutilek ikasi dezaketen eta ikasketak amaitu ditzaketen, kalkulatzen da Bigarren Hezkuntzako 20 milioi neska ezingo dutela eskolara itzuli COVID-19aren² pandemiaren ostean. Klima-krisiaren eraginaren ondorioz, gutxienez 12,5 neska ez dituzte ikasketak amaituko 2025era arte³.

Lanik, hezkuntzarik edo prestakuntzarik gabeko hiru gaztetik bi (% 67,5) emakume gazteak dira (15 eta 24 urte artean)⁴. Analfabetismo-egoeran dauden helduen % 63 emakumeak dira, eta

1 Global Estimates: Number of crisis-affected children and adolescents in need of education support, Education Cannot Wait, 2022.

2 Girls' education and COVID-19: What past shocks can teach us about mitigating the impact of pandemics. Malala Fund, 2020.

3 A greener, fairer future: Why leaders need to invest in climate and girls' education. Malala Fund, 2021.

4 ILO/SIDA Partnership on Employment, Young people not in employment, education or training, Technical brief n° 3, 2020.

proportzio hori ez da aldatu zenbait hamarkadatan⁵; horrez gain, genero-arrakala berriak ari dira sortzen konpetentzia digitaletan. Egungo hezkuntzak ez ditu genero-gidalerro eta -rol jakin batzuk hausten, eta horiek oztopoak sortzen dizkiete neskei balio erantsi eta soldata handiagoak dituzten zenbait lanbide lortu edo aukeratzeko: zientziak, teknologiak, ingeniari-tza eta matematikak (STEM).

Mundu-mailan, 5 eta 9 urte arteko eta 10 eta 14 urte arteko neskek denboraren % 30 eta % 50 gehiago ematen dute, hurrenez hurren, etxeko lanetan mutilek baino⁶. Generoaren arabera lanbanaketa horrek gidalerro bat berresten du: neska eta emakumeak arduratzen dira ordaindu gabeko zaintzez, eta horrek bizialdi osoko ikaskuntzarako eta aurrerapen profesionalerako aukerak murrizten dizkiete.

Emakume irakasleen proportzioa % 92tik % 94ra handitu zen 2000 eta 2020 artean eskolaurreko irakaskuntzan, eta % 59tik % 67ra Lehen Hezkuntzan. Hala ere, Saharaz hegoaldeko Afrikan Bigarren Hezkuntzako irakasleen soilik % 32 dira emakumeak⁷. Gainera, kristalezko sabai gogorra dago hezkuntzako kudeaketa- eta zuzendaritza-postuetan.

Hezkuntza funtsezkoa da nesken eskubide-urraketei aurre egiteko, adibidez hauek: haurren ezkontza (bost emakume gaztetatik bat 18 urte bete aurretik ezkontzen da⁸, eta aurreikusten da hamarkada honetan 150 milioi neska behartuko dituztela ezkontzera), genero-indarkeria (15 eta

5 A new generation: 25 years of efforts for gender equality in education. UNESCO, 2020: <https://gem-report-2020.unesco.org/gender-report/>

6 Neskentzako datuen boterearen bilketa: Taking stock and looking ahead to 2030. New York: UNICEF, 2016: <https://www.unicef.org/gender/files/Harnessing-the-Power-of-Data-for-Girls-Brochure-2016-1-1.pdf>

7 Global education monitoring report 2022: gender report, deepening the debate on those still left behind. UNESCO, 2022.

8 UNFPA, 2022: <https://www.unfpa.org/es/matrimonio-infantil>



19 urte arteko 15 milioi neska izan dira sexu-harreman behartuen biktima⁹), haurdunaldi goiztiar eta nahi ez direnak (garapen-bidean dagoen mundu osoan 3 emakume gaztetik ia 1ek 19 urte bete aurretik erditu zuen¹⁰) eta haurren lana (mundu osoan, 10 haurretik 1ek lan egiten du, eta 63 milioi neska dira¹¹).

Dena dela, eskolak ez dira beti toki seguruak: 246 milioi hurrek¹² bizi dute generoarekin lotutako eskola-indarkeria, eta horrek eragin gogorak ditu osasun mental eta fisikoan, ongizatean eta eskolako arrakastan. Sexu- eta ugalketa-zerbitzuetarako sarbidea ere funtsezkoa da: zenbatesten da Saharaz hegoaldeko Afrikako hamar neskatatik bat ez dela eskolara joaten menstruzioan zehar, hau da, eskolako ikasturtearen % 20¹³.



EGOERA ESPAINIAN

Espainian ere badaude landu beharreko erronkak. Horietako batzuk dira ikasketa profesionalak eta unibertsitatekoak aukeratzeko desberdintasunak, irakaskuntzaren feminizazioa, generoestereotipoak eta genero-arrakala digitala.

Ekonomia Lankidetzeta eta Garapenerako Antolakundeko (ELGA) herrialdeetan, horien artean Espainia, soilik zientzia edo matematikan emaitza onenak lortu zituzten emakumezko ikasleen % 14k nahi zuten lan egin zientzia eta ingeniartzan, mutilen % 26ren aldean. Espainian, soilik zientzia, teknologia, ingeniartzeta eta matematikarekin lotutako karreretako ikasleen % 13 dira emakumeak¹⁴.

Hezkuntzako Adierazleen Estatuko Sistemaren datuek (2022) adierazten dute irakasleen % 67,1 direla emakumeak. Hala ere, hezkuntza-arlo eta -mailen arabera desberdintasun handiak azpimarratu behar dira. Emakumeen presentzia txikiagoa da unibertsitateko irakasleen artean (% 42,9), eta, Haur Hezkuntzan, ia irakasle guztiak dira emakumeak (% 97,7). Kristalezko sabaia bereziki islatzen da unibertsitatean, emakumezko katedradun eta errektoreen presentzia txikiagoarekin.

Gaztedia eta Genero Barometroaren arabera, emakumeen % 26k eta gizonen % 30,8k uste dute laguntza- eta zaintza-sektoreak egokiagoak direla emakumeentzat, baita hezkuntza eta irakaskuntzaren arloa ere (emakumeen % 22,2 eta gizonen % 27,1).

9 UN Women: <https://www.unwomen.org/en/what-we-do/ending-violence-against-women/facts-and-figures>

10 Motherhood in Childhood: The Untold Story. UNFPA, 2022: <https://www.unfpa.org/publications/motherhood-childhood-untold-story>

11 ILO and UNICEF: Child Labour: Global estimates 2020, trends and the road forward, 2021: https://www.ilo.org/wcmsp5/groups/public/@ed_norm/@ipec/documents/publication/wcms_797515.pdf

12 Orientaciones internacionales: violencia de género en el ámbito escolar. (Nazioarteko orientazioak: genero-indarkeria eskola-arloan) UNESCO y ONU Mujeres (2019).

13 Puberty education & menstrual hygiene management. UNESCO, 2014: <https://unesdoc.unesco.org/ark:/48223/pf0000226792>

14 "El estado de la ciencia 2020" ("Zientziaren egoera 2020"), Iberoamerikako Estatuaren Erakundea (IEE).



GURE POSIZIOA: GENERO-BERDINTASUNA SUSTATUKO DUEN HEZKUNTZA

HAMK koalizioak hezkuntza babestu eta sustatzen du pertsona guztien oinarrizko eskubide gisa, genero, sexu-orientazio, genero-adierazpen, nortasun edo sexu-ezaugarri guztietako pertsonak barne. Gure ustez, genero-desberdinkeriaz gain beste faktore askok eragiten dute pertsona bat bizialdi osoko ikaskuntzatik kanpo uztea.

Nazioarteko komunitateari eta gobernuei eskatzen diegu doako eta kalitatezko hezkuntza inklusibo eta publikoa emateko, inor baztertu gabe genero, sexu-orientazio, genero-adierazpen, nortasun edo sexu-ezaugarriengatik edo beste arrazoi batzuegatik (desgaitasuna, jatorri etnikoa, adina, hizkuntza, kokapena, erlijioa, sinesmena, migratzaile- edo errefuxiatu-estatusa edo beste estatus minoritario bat).

Genero-hezkuntza eraldatzailea hezkuntza inklusiboa, berdinzalea eta kalitatezkoa da (4. GJH eta zehazki 4.7 xedea), eta genero-justiziako ingurune bat sustatzen du haur, nerabe eta gazteentzat, aniztasuna aintzat hartuta (5. GJH eta zehazki 5.1 xedea). Hezkuntza-sisteman genero-desberdinkeriak aitortu eta horiei erantzutetik eta ikasleen ikaskuntza-esperientziatik harago doa, eta ahaleginak egiten ditu hezkuntzaren potentzial osoa baliatzeko, jarrera eta praktikak eraldatzeko hezkuntza-sistemaren barruan nahiz kanpoan. Horrela, genero-justiziako ingurune zabalago baten alde egiten du.

Genero-hezkuntza eraldatzaileak hezkuntzako oztopoak ezabatuko lituzke eta gizarte-aldaketa garrantzitsuen aldeko aurrerapena sustatuko luke; adibidez, genero-indarkeria eta hauren ezkontzak murriztea, emakumeen parte-hartze handiagoa lan-merkatuan eta emakume eta nesken genero-berdintasuna eta lidergoa sustatzea erabakiak hartzeko roletan.

Genero-berdintasunerako hezkuntza eraldatzailea sustatzeko, honako hauek egin behar dira: ulertu eta landu behar da estereotipo eta arauak haurrengan eragiten dutela bizitza osoan zehar, jaiotzatik helduarora arte; gazteek eragiten dieten erabakien gainean duten gaitasuna indartu behar da, ezagutzak, konfiantza, trebetasunak eta baliabideen sarbide eta kontrola handituz; mutil, gazte eta gizonekin lan egin behar da, maskulinitate positiboen alde egiteko eta berdintasuna



sustatzeko; neska eta mutilen eta emakume eta gizonen aniztasuna kontuan hartu behar da; haien behar eta interesak identifikatu eta ase behar dira; baldintzak hobetu behar dira, eguneroko beharrak kontuan hartuta, baita neska eta emakume gazteen posizio eta gizarte-balioa ere, eta, azkenik, ingurune egoki bat sustatu behar da, interesdun guztiek elkarrekin lan egiteko eta neska eta gazteei laguntzeko genero-berdintasunerako bidean.

Eskola babes-espazioa izan daiteke prebenitzeko, eraldaketa pertsonal eta kolektiboa sustatzeko eta nesken aurkako indarkeria oro ezabatzea bermatzeko. Gainera, indarkeriaegoerak gertatu badira, kalte fisiko eta emozionalak konpondu behar ditu. Horretarako, berdintasunean eta genero-ikuspegiarekin hezi behar dugu, hau da, neskarik atzean utziko ez duen kalitatezko hezkuntzarekin.



GURE ESKAERAK

Gobernuari, Hezkuntza eta Kanpo Arazoetako, Europar Batasuneko eta Lankidetzako Ministerioei, eta Hezkuntza eta Nazioarteko Lankidetzako Sailei:

1

Maila guztietan:

- Genero-berdintasuna hezkuntza-sektoreko plan eta politiken erdigunean jartzea eta beharrezko aurrekontua ematea. Genero-desparekotasunak eta horien azpiko faktoreak identifikatu eta jorratzea, lehen haurtzarotik, genero-arau, -estereotipo eta praktika kaltegarriak eraldatzeko xedearekin, askotan hezkuntzan eta hezkuntzaren bidez betiketzen baitira.
- Klima-krisiari buruzko hezkuntza lehenetsi eta finantzatzea, jorratzeko nola eragiten duen genero-desberdinkeria larrialdi global horretan, eta, horrez gain, emakume, neska eta LGTBIQ+ ikasleen zaugarritasun handiengoaren analisi kritikoa egin ahal izatea, erabakiak hartzeko funtsezko prozesuetan haien ekarpenak kontuan hartzen direla bermatzeaz gain.
- Hezkuntza-politika eta -aurrekontuen genero-indarkeriari buruzko datu bereziak sortzea, aurrerapena neurtzeko eta abian jarritako neurriei buruzko ebidentziak edukitzeko. Ikaskuntza-emaizak eta generoaren eta beste aldagai interseksional batzuen araberrako aurrerapen akademikoa monitorizatzea eta ekintza positiboak egitea joera negatiboak eta genero-arrakalak lantzeko.

2

Nazio-mailan:

- Premiaz handitzea hezkuntzako inbertsioa, beharrezko baliabideak bideratzea hezkuntza-kalitatea hobetuko duten eta berdintasuneko hezkuntza-ereduak garatuko dituzten programa eta proiektuetara eta diskriminazioa eragiten duten faktoreak ezabatzea (etnia, dibertsitate funtzionala, egoera ekonomikoa...).
- Genero-aurreiritzi eta -estereotipoak ezabatzea ikasketa-planetatik, eskolacurriculumetik, testu-liburuetatik eta beste irakaskuntza-material batzuetatik, eta irakasleen gaikuntza bermatzea, irakasle guztiek lortu ahal izan ditzaten generoarau, -jarrera eta -praktika kaltegarriak, botere-harreman desberdinak, generodiskriminazioa eta desberdinkeria handienak aztertu, zalantzan jarri eta aldatzeko ezagutza eta trebetasunak.

- Neska eta nerabeen parte-hartzea sustatzea STEM ikasketa eta karreretan, baita mutiko eta mutilena ere zaintza-lanbideetan, eta curriculumeko eta kanpoko jardueren, mentoretza-programen, unibertsitateekiko aliantzen eta ikasketa-beken alde egitea, karrera profesionalekin lotutako estereotipo eta alborapenak ezabatzen.
- Gailuetan, konexioan, konpetentzietan eta segurtasunean genero-arrakala digitala murriztea ere funtsezkoa izango da neska, nerabe eta emakume gazteen hezkuntzarako sarbidea eta parte-hartzea handitzeko.
- Funtsak bideratzea hezkuntzarekin lotutako gizarte-babesera, haurren txirotasuna eta balia bideak lortzeko genero-arrakalak jorratzeko. Garrantzitsua da zaugarritasun- eta bazterketa goeran dauden haurrak gizarte-babeseko mekanismoekin konektatzea (adibidez, eskola-jantokiak) eta familien diru-sarrerak hobetzea desberdinkeriak ezabatzeko eta genero-arrakalak ixteko.
- Doako eta kalitatezko eskolaurreko hezkuntza bermatzea, hurrei eskolarako prestatzen laguntzeko, behar partikularrak identifikatzeko eta txirotasun eta gizarte-bazterketako arriskuan dauden familietako hurrei laguntzeko, kontziliazioa ahalbidetzeko eta familian genero-desberdinkeria gehiago prebenitzeko.
- Sexu-hezkuntza integrala garatu eta hedatzea, eskubideetan oinarritutako ikuspegia hartzeko eta berdintasuna eta inklusioa sustatzeko sexu- eta ugalketa-osasunean, haur, nerabe eta gazteei laguntzeko ezagutzak lortzen, balio eta jarrerak aztertzen eta osasuna eta ongizatea sustatzeko beharrezko trebetasunak garatzen, genero-indarkeria jorratzeko eta nahi ez diren haurdunaldiak murrizteko nerabeen artean, testuinguru guztietan, krisiak barne.

3

Nazioarteko lankidetzan:

- Espainiako lankidetzaren finantzaketa handitzea genero-ikuspegia duen hezkuntzaren arloan, eta lanean jarraitzea nazio-errenta gordinaren % 0,7 bideratzeko Garapenerako Laguntza Ofizialera (GLO); % 20 hezkuntzara bideratu behar da, eta % 10 laguntza humanitariora. Azkenik, % 10 larrialdietako hezkuntzara bideratu behar da. Aintzat hartzea hezkuntzan genero-desparekotasun esanguratsuak dituzten herrialdeetako egoera, eta inbertsioak bideratzea hezkuntza-sisteman gaitasunak sortzera, generodesberdinkeria eta bazterketa nabarmen jorratzeko. Gizarte-segurantzako sareetako inbertsioak (adibidez, eskola-jantokiak) inoiz baino beharrezkoagoak dira, eta frogatu da neska zaugarrienen ikaskuntza-sarbidea, -iraunkortasuna eta -emaitzak hobetzen dituztela; horrez gain, haurren ezkontza behartuen arriskua, nahi ez diren haurdunaldi goiztiarrak eta beste genero-indarkeria mota batzuk murrizten dituzte.
- Garapenerako eta Herritartasun Globalerako programak babestea eta gutxienez GLOaren % 3 baliatzea berdintasunaren aldeko diskurtso eta praktikak indartu dituen herritar kritikoak sortzeko. Tokiko testuingurua funtsezkoa da herritar globalak aktibatzeke eta sentsibilizazio- eta prestakuntza-espazio eraldatzaileak edukitzeko, non pertsonen aukera emango zaien garapen jasangarriaren alderdiak ezagutu eta horietan inplikatzeko. Lankidetzaren deszentralizatuak gizarte-ehuna babestu, indartu eta aktibatzeke balio du, eta lan koordinatua eta gertukoa sortzen du gobernu kanpoko erakundeekin.

4

Eskolei eta hezkuntza-komunitateari:

- Genero-parekotasuna eta diskriminaziorik eza bermatzea hezkuntza-maila eta ikasgai guztietan, irakaskuntzan eta hezkuntza-administrazioan. Horrek barne hartzen du irakasleei laguntzea ordainsari justu eta bidezkoekin, etxebizitza seguruarekin, garraioarekin eta urruneko tokitan lan egiteko beharrezko beste baliabide batzuekin. Orobat, ahaleginak egitea kristalezko sabaia hausteko lidergoan eta administrazioan.
- Lan egitea eskolak espazio seguruak eta indarkeriarik eta diskriminaziorik gabekoak izateko, neska, nerabe eta gazteen beharrei erantzuten aniztasuna kontuan hartuta, eta babes, ongizate, laguntza psikologiko eta osasuneko zerbitzuak integratzen. Azpiegitura irisgarri eta seguruak, ur egokiarekin, bainugelekin eta higiene pertsonalerako espazioekin, lehentasunekoak izan behar dute maila guztietan, osasuna hobetzeko, sexu-jazarpen eta -abusuen arriskua murrizteko eta menstruazioarekin lotutako arrakalak ixteko nesken artean.
- Entzuteko mekanismoak eta genero-indarkeria jorrazteko protokoloak ezartzea eskolan, eta salaketa-prozesuak indartzea konfidentzialtasun-baldintzetan.
- Haur, nerabe eta gazteen parte-hartzea eraldatzea eskolan eta gizarteko arlo guztietan, eragiten dieten erabakietan hitz egiteko eskubidea bermatzen eta parte-hartze aktibo eta inklusiboa sustatzen. Halaber, kontuak hartuko dira generoan oinarritutako diskriminazioa eta oztopoak, eta aktibismoa eta gazteen erakunde feministak sustatu eta babestuko dira.

5

Familiei, zaintzaileei eta komunitateei:

- Gizarte-arau, jarrera eta genero-praktika kaltegarriez, botere-harreman desberdinez, genero-diskriminazioaz eta desberdinkeria handienez jabetzea, horiei buruz hausnartzea eta kritikoki berrikustea, familian berdintasuna sustatzen.
- Komunitatearen parte-hartzea sustatzea, eta bereziki guraso, zaintzaile eta familia, baina baita funtsezko beste eragile batzuen ere, genero-berdintasunerako hezkuntzan. Eraldaketa erreala gerta dadin, komunitateek aldaketa-prozesuaz jabetzeko beharrezko tresna eta baliabideak izan behar dituzte.

Martxoaren 8an botere-harremani aurre egin behar diegu eta berdintasunean, errespetuan eta inklusioan oinarritutako arauak eraiki behar ditugu, haur eta gazteek gora egiteko koskak topa ditzaten, eta ez saltatu beharreko oztopoak. Hezkuntza berriro irudikatzeke unea da, mundu justu eta inklusiboago baterako.

Campaña Mundial por la
EDUCACIÓN
Coalición española www.cme-espana.org



La CME en España está liderada por:



Esta publicación cuenta con la colaboración de la Cooperación Española, a través de la Agencia Española de Cooperación Internacional para el Desarrollo (AECID) con cargo al proyecto "Campaña Mundial por la Educación: llamada a la acción por el ODS 4". El contenido de la misma es responsabilidad exclusiva de la Coalición española de la Campaña Mundial por la Educación y no refleja, necesariamente, la postura de la AECID.

Con la financiación de:

